



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/10/07

Omenaldia Gernikan Agirre Lehendakariari eta lehenengo Eusko Jaurlaritzari

Ordezkaritza politiko eta instituzional zabalak hartu dau parte Gernikako Batzarretxean Eusko Jaurlaritzaren eta Jose Antonio Agirre lehenengo Lehendakariaren 80. urteurrena ospatzeko antolatu dan ekitaldi nagusian. Iñigo Urkullu egungo Lehendakaria buru dala, daborduko urrun dagon 1936ko urriaren 7 haretan Gernikan sortu zan lehenengo Jaurlaritzaren figurea omentzeko balio izan daben hainbat ekimen antolatu dira. Ezin dogu ahaztu Jaurlaritza haretako kideek oso gertakari gogorrak jasan behar izan ebezala Gerra Zibilean, Gernikaren bonbardaketea edo herbeste luzea, beste batzuen artean.

Omenaldiko ekimen horreen adierazpen nagusia gaur izan da, Gernikako Arbolaren ondoan, orain zortzi hamarkada, hain zuzen be, Agirrek zin egin eban leku berean. Ekitaldi hunkigarri eta jendetsuan Euskadiko ordezkariak gorenak hartu dau parte. Urkulluk demokrazioako beste lau lehendakariak hartu ditu eskilaretan, Carlos Garaikoetxea, Jose Antonio Ardanza, Juan Jose Ibarretxe eta Patxi Lopez. Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentek gauza bera egin dau Unai Rementeria Bizkaiko Ahdun Nagusiagaz eta Jose Maria Gorroño Gernikako Alkateagaz eta gaur egungo Gobernu Kontseiluko kideakaz. Gobernu Kontseiluak ez ohiko saioa egin dau Foru liburutegian, lehenengo Gobernu Kontseilua egin zan leku berean.

200 musikari, dantzari, antzezle eta abesbatzako kide baino gehiago izan dituan ekitaldi sinbolikoak hainbat une hunkigarri izan ditu, bost lehendakariak Agirreraren senideei egindako harrera ekitaldia edo senideek Gernikako Batzarretxeko Ohorezko Liburua sinatzea, adibidez, Gernikako Arbolaren azpian makilea itzi ostean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
07/10/2016

Homenaje en Gernika al Lehendakari Aguirre y al primer Gobierno Vasco

Una nutrida representación política e institucional ha participado en la Casa de Juntas de Gernika en el acto principal organizado para conmemorar el 80º aniversario del Gobierno vasco y el de su primer lehendakari, José Antonio Aguirre. Con el actual lehendakari, Iñigo Urkullu, a la cabeza, diversas iniciativas han servido para glosar la figura de aquel primer Ejecutivo surgido en Gernika un lejano 7 de octubre de 1936 y cuyos miembros tuvieron que hacer frente a acontecimientos cruentos en plena Guerra Civil, caso del bombardeo de la localidad foral, o un prolongado exilio.

Estas iniciativas de homenaje han tenido su máxima expresión hoy junto al Árbol de Gernika, justo donde Aguirre juró su cargo hace exactamente ocho décadas. Al sentido y multitudinario acto ha acudido la más alta representación institucional de Euskadi. Urkullu ha recibido en las escalinatas a los otros cuatro lehendakaris de la democracia, Carlos Garaikoetxea, José Antonio Ardanza, Juan José Ibarretxe y Patxi López, después de que la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, el Diputado General de Bizkaia, Unai Rementería, y el Alcalde de Gernika, José María Gorroño, hicieran lo mismo con los miembros del actual Consejo de Gobierno que han celebrado en la biblioteca foral una sesión extraordinaria, en el mismo sitio donde se produjo aquel primer Consejo de Gobierno.

El simbólico acto de homenaje, con más de 200 músicos, dantzaris, actores y coralistas, ha contado con varios momentos emotivos, como el recibimiento realizado a los familiares de Aguirre por parte de los cinco lehendakaris o la firma de estos en el Libro de Honor de la Casa de Juntas de Gernika, tras dejar previamente su “makila” bajo el Árbol de Gernika.